

# ZERK AMORRATZEN GAITU?

Eta zer egin genezake halako egoeratan?

Binaka jarri eta egin dezagun koplatan!

Lagun batek, haserrearazten gaituen egoera bat deskribatuko du.  
Beste lagunak, horrelakoetan zer egin genezakeen proposatuko du

ONETIK ATERATZEN GAITU	HALAKOTAN ZER EGIN
..... odolak <b>IRAKIN</b> hainbeste azterketa ta etxeko <b>LANEKIN!</b>	..... hainbeste <b>ENDREDO</b> lan pixka bat egiten bada <b>EGUNERO.</b>
..... ez dut, ez, <b>MAITEA</b> hizketan ari banaiz kasu ez <b>EGITEA.</b>	..... konturatu <b>DADIN</b> belarri ertzean jarri <b>ALTABOZAREKIN.</b>
..... <b>BARREN-BARRENEAN</b> nire *ahizpa(anai) txikia harrotzen <b>DENEAN!</b>	..... ipini <b>APARTE</b> arretarik ez jarri lasaitzen den <b>ARTE.</b>
..... sutan, <b>KOMUNEAN</b> paper rolloa inork hustu <b>DUENEAN!</b>	..... aurrezteko <b>KEXAK</b> badaezpada patrikan eraman <b>KLEENEXAK!</b>
..... amorruz, <b>SUTUA</b> norbaitek txibatzean nire <b>SEKRETUA.</b>	..... lagunen <b>JOKOAN</b> sekretuak idatzi <b>EGUNEROKOAN.</b>
..... lehoien <b>PAREAN</b> sardexka sartzen badu nire <b>PLATEREAN.</b>	..... erraza da, <b>TIRA</b> mahaian ez zaitez egon zerura <b>BEGIRA.</b>
..... ez da, ez, <b>TXISTEA</b> gauean albokoa zurrungan <b>HASTEAN.</b>	..... soluzio <b>POLITA</b> egin lo belarritan tapoiak <b>JARRITA.</b>

Asma ditzagun egoera eta soluzio berriak!  
Lagugarri bazaigu, oin bikoteak erabili genitzake.

ONETIK ATERATZEN GAITU	HAJAKOTAN ZER EGIN
AMORRUA ERRUA	HORRELAKOETAN BATETAN
HASERRE BARRE	HURRENA DENA
GORROTO TOPO	HARA BAZARA
BORBORKA KONTRA	DADIN EGIN
MAJALETXEA JARTZEA	AIZU EZAZU
ARAZOA OSOA	ZU DEZAKEZU
BARRENEAN DENEAN	KONPONBIDEA IDEA
GORI-GORI INORI	AUKERA ERA
PIPERTUTA ASPERTUTA	ADITU DITU
SUFRITU BADITU	BAI IASAI